



**EBAZPENA, 2020ko otsailaren 17koa, Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten eta 2019-2020 ikasturtean eskolatuta dauden eta ezohiko epean eskaera gauzatu duten ikasleen eskola-garraiorako banakako diru-laguntza deialdia.**

2019ko ekainaren 12ko Hezkuntzako sailburuaren Aginduaren bidez eskola-garraiorako banakako diru-laguntzetarako deialdia egin zen desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten ikasleentzat, baldin eta eskolatuta badaude etxebizitzaren arabera dagokien ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak esleitutako itunpeko ikastetxe pribatu batean eta ezin badute saileko eskola-garraioa erabili 2019-2020 ikasturtean.

Eskaerak aurkezteko epe orokorra amaiturik eta behin aztertu ondoren 2019ko azaroaren 7ko Hezkuntza Berriztatze zuzendariaren Ebazpenaren bitartez eskatutako laguntzak ematea edo ukatzea ebatzi zen.

Gerora, bertan zehazten diren inguruabarrak gertatzen direnean eskaerak aurkezteko eta emandako zenbatekoa zenbatzeko ezohiko epe bat irekitzen duen deialdiaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eskaera berriak aurkeztu dira.

Eskaerak guztiak Aginduan xedatutakoaren arabera aztertuta, honakoa

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ezohiko epean eskaera gauzatu duten eta Hezkuntzako Sailburuaren 2019ko ekainaren 12ko Aginduan ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleei garraiorako banakako diru-laguntzak ematea. Eranskinean ikastetxe bakoitzeko eskatzaileei emandako zenbatekoak adierazita daude.

Bigarrena.- Honako Ebazpena interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Ikasle eskatzaileak matrikulatuta dauden ikastetxeetako zuzendariari bidalitako komunikazioaren bidez, diru-laguntzen ebazpenaren berri emango da eta eskatzaile bakoitzari emandako zenbatekoa zehaztuko da.

Hirugarrena.- Hezkuntza Berriztatze Zuzendariaren 2019ko azaroaren 7ko Ebazpenaren, ez ohiko epeko 2019ko azaroaren 14ko eta 2020ko otsailaren 17ko Ebazpenaren Eranskina aldatzea. Ebazpen horiek desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten eta 2019-2020 ikasturtean eskolatu ziren ikasleentzako eskola-garraiorako banakako esleipenen deialdia ebatzi dute. Aldaketa honen bidez, ebazpen honetan txertatu nahi dira aitorturiko laguntzen onuradunak direnei emandako zenbatekoak.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke Hezkuntzako sailburuordearen aurrean, jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 17n

  
Lucía Torrealday Berrueco,  
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA

ANEXO / ERANSKINA

ANEXO / ERANSKINA

BIZKAIA:

KODEA CÓDIGO	IKASTETXEA CENTRO	ESLEITUTAKOA ASIGNACIÓN
014278	IES ELEXALDE BHI	6.650,00 €

GIPUZKOA:

KODEA CÓDIGO	IKASTETXEA CENTRO	ESLEITUTAKOA ASIGNACIÓN
012173	IES KOLDO MITXELENA BHI	4.400,00 €
012494	CPEE ASPACE HBIP	2.505,6 €